



PechaKucha

2021eko KREA BIDASOAN

PECHAKUCHAREN HAMARGARREN EDIZIOA BIDASOAN. PECHAKUCHA HAU 2021EKO KREA BIDASOA TOPAKETARI AMAJERA EMATEKO EGINGODA, APIRIIAREN 29AN, OSTEGUNA, ONLINEN. BIDASOALDEKO ENPRESA EDO PROIEKTU SORTZAILEEK EGIN DITUZTEN LANAK EDO IZAN DUTEN IBILBIDEA ONLINEN AURKEZTEKO AUKERA IZANGO DUTE.

**IZEN EMATEA
MARTXOAREN 22A
BAINO LEHEN!
(14:00AK ARTE)**

PECHAKUCHA MUNDUAN

PechaKucha Tokyo 2003an sortutako ekimena da, arkitektoek eta diseinatzaileek beren proiektuak eta lanak publikoan formatu xume, azkar eta oso bisualean aurkeztu ahal izateko plataforma gisa. Gaur egun, PechaKucha formatua era guztietako proiektuak aurkezteko erabiltzen da: Enpresa sortu berriak, herritarren ekimen berriak, bidaia inspiratzaileak, kezka edo gogoetak, sukaldaritza errezetak... ez dago adin-mugarik, ez hitz egiteko gai zehatzik; partekatzeko, inspiratzeko eta hunkitzeko zerbait duen orok du tokia PechaKuchan. PechaKucha ekimen ezformala da, dibertigarria, ideiak eta gogoetak partekatzeko sortzaileen biltokia... Aukera bat da beren lana publikoari erakutsi nahi dioten eta komunikabide masiboetara sarrerarik ez duten gazteentzat, erakusteko obra bai baina galeria bat betetzeko adina ez duten gazteentzat... Azken finean, pertsona sortzaileek beren lana publikoari erakusteko eta honekin partekatzeko plataforma perfektua.

PechaKucharen formatuak ideia sinple bat du oinarrian: 20 irudi x 20 segundu. Cada participante propone 20 imágenes, que se proyectan durante 20 segundos cada una, y sobre ellas hace su presentación.

Parte-hartzaile bakoitzak 20 irudi jartzen ditu, horietako bakoitza 20 segunduz proiektatzeko, eta horiez baliaturik egiten du bere aurkezpena. Formatu honi esker, aurkezpen erakargarri, zehatz eta, normalean, dibertigarriak egiten ahal dira.

PARTE HARTZEKO INTERESA BADUZU:

Jar zaitez harremanetan Bidasoa bizirik-ekin:

Tel: 943 50 95 84 // 943 50 96 00

E-maila: ekintzailetza@bidasoa-activa.com eta bidali eskatzen dizkizugun datuak:

- Harremanetarako izena.
- E-maila eta telefonoa.
- Proiektuaren izena.
- Proiektuaren deskribapen laburra eta ikuspuntua.
- Aurkezpenaren hizkuntza.

**Martxoaren 24an, KREA 2021ean aurkeztuko diren proiektuak zeintzuk diren iragarriko dugu. Hautatutakoek beharrezkoak diren argibideak emango dizkiegu 20 irudiak bidali dituzten eta aurkezpenak prestatu dituzten (hauetarekin batera bat egingo dugu martxoaren 31ean).*

PECHAKUCHA AURKEZPENETARAKO IDEIA BATZUK

Enpresa sortu berri bat aurkeztea, enpresa batek egin-dako lanak eta bere ibilbidea aurkeztea, norberak sortutako artelanak aurkeztea, babesa behar duen herritarren ekimenen bat aurkeztea, beste enpresa sortzaile batzuentzat baliagarriak izan litezkeen esperientzia edo gogoetak aurkeztea, eta abar.

Modu positiboan baloratuko dira proiektu edo ikuspegi sortzaile, berritzaile edo harrigarriak duten proposamenak.